ALHAO ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN ALDIZKARI OFIZIALA

2024ko urriaren 30a, asteazkena • 124 zk.

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

## GIZARTE POLITIKEN SAILA

**98/2024 Foru Agindua, urriaren 23koa Gizarte Ongizaterako Foru Erakunde autonomoaren egitura eta funtzionamenduaren erregelamendua onartzen duen Diputatuen Kontseiluaren apirilaren 3ko 25/2012 Foru Dekretua aldatzen duen foru dekretua egiteko prozedura hastea**

Otsailaren 28ko 6/2023 Foru Dekretuaren 12. artikuluan ezarritakoaren arabera, Arabako Foru Aldundiaren xedapen orokorrak egiteko prozedura onartzea, foru-agindu honen bidez hasten da prozedura hori.

Hasteko ebazpenak, aipatutako Foru Dekretuaren 13. artikuluak xedatzen duen bezala, labur-labur adieraziko ditu ekimena justifikatzen duten xedea, helburua eta arrazoiak, haren bideragarritasun juridiko eta materiala, antolamendu juridikoan izango duen eraginaren hurbilketa, xede berarekin aldatuko den araudia eta egokitzat jotzen diren izapideen eta txostenen zerrenda.

Foru dekretu hori Arabako Foru Aldundiko Gizarte Politiketako Sailaren 2024ko iraileko eta 2025eko martxoko ekitaldirako Arau-planean sartuta dago.

Otsailaren 28ko 6/2023 Foru Dekretuaren 12. artikuluak ezartzen duenez, xedapen orokorrak egiteko prozedura xedapen horien gaiaren gaineko eskumena duen saileko titularrak hasiko du.

Hori guztia dela eta, nire eskumenak erabiliz, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Gizarte Ongizaterako Foru Erakunde autonomoaren egitura eta funtzionamenduaren erregelamendua onartzen duen Diputatuen Kontseiluaren apirilaren 3ko 25/2012 Foru Dekretua aldatzen duen foru dekretua egiteko prozedura hastea.

a) Xedea eta helburua.

Foru dekretu berri honekin lortu nahi den helburua da Diputatuen Kontseiluaren apirilaren 3ko 25/2012 Foru Dekretua aldatzea, Gizarte Ongizaterako Foru Erakunde autonomoaren egitura eta funtzionamenduari buruzko araudia onartzen duena.

Erregulazio horrek bi helburu ditu:

1. Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea modernizatzeko prozesuaren lehen fasea garatzea, erakundearen barne-funtzionamendua hobetzeko antolaketa-egitura erreformatuz, Administrazio Kontseiluak 2024ko uztailean onartutako GOFEren modernizazio-planaren arabera.

Gizarteratze eta Indarkeria Matxistaren Arlo berri bat sortzea, helburu bikoitzarekin:

a. Indarkeria matxistaren aurka borrokatzeko eta indarkeria hori pairatzen duten emakumeei arreta emateko politikei dagokien protagonismoa ematea.

b. Gizarteratzeko zerbitzuak bultzatzea.

b) Bideragarritasun juridiko eta materiala.

Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legeak, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sisteman integratutako gizarte-zerbitzuak egituratzen dituenak, Eusko Jaurlaritzari, foru-aldundiei eta udalei esleitutako eskumen-esleipena agintzen du.

185/2015 Dekretua, urriaren 6koa, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzkoa, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoa garatzen duena (Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 22. artikuluan arautua), 41.3 artikuluan, Arabako Foru Aldundiari ematen dio Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren

bigarren mailako arretako gizarte-zerbitzuak hornitzeko eskumena (zuzeneko ekintzaren esparruan Eusko Jaurlaritzari esleitutakoak izan ezik), Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Katalogo horretan jasoak.

Otsailaren 9ko 13/2016 Foru Dekretuak, Diputatuen Kontseiluarenak, Gizarte Zerbitzuen Departamentuaren egitura organikoa eta funtzionala onartzen duenak, haren eginkizunak eta eskumenak ezartzen ditu 1. artikuluan, eta honako hauek dagozkio: Hirugarren adina, desgaitasuna, haurrak eta familia, oinarrizko gizarte zerbitzuak, Prestazio ekonomikoak eta ordenamendu juridikoak ezartzen dizkion gainerakoak. Era berean, 3. artikuluak Gizarte Zerbitzuen Sailari atxikitzen dio Gizarte Ongizaterako Foru Erakunde (GOFE) autonomoa, eta haren helburuak honako hauek dira: Arabako Lurralde Historikoko Gizarte Zerbitzuekin lotutako jarduerak antolatu, kudeatu, eman eta gauzatzea.

Era berean, Jarduera Ekonomikoen eta Foru Zerbitzu Publiko Deszentralizatuen Kudeaketari buruzko urriaren 30eko 15/1987 Foru Arauak 9.a) artikuluan ezartzen duenez, Arabako Foru Aldundiko organoei dagokie, bakoitzak dituen eskumenen arabera, antolaketa eta egitura orokorrari buruzko erabakia hartzea, plantilla onartzea eta foru-erakunde autonomoetako langileen politika finkatzea. Arabako Foru Aldundiaren Gobernu, Antolaketa eta Araubide Juridikoari buruzko martxoaren 15eko 10/2023 Foru Arauaren 8.2 artikuluaren arabera, Foru Gobernu Kontseiluari dagokio sailen eta haien mendeko erakunde autonomoen egitura organikoa onartzea, bai eta edozein antolamendu-erregelamendu ere.

c) Ordenamendu juridikoan izango duen eragina.

Gizarte Ongizaterako Foru Erakunde autonomoaren egitura eta funtzionamenduaren erregelamendua onartzen duen Diputatuen Kontseiluaren apirilaren 3ko 25/2012 Foru Dekretua aldatzen duen Foru Dekretua egiteko prozedura hastea.

Arau-testu hori 2024ko irailerako – 2025eko martxorako onartutako Gizarte Politiketako Sailaren Arau-planean jasota dago.

d) Aurrekontuan eta ekonomian izango duen eragina.

Erregulazio berriak aurrekontu-eragina du.

e) Proiektua izapidetzea.

Hura egiteko, proposatutako araudiaren gaia eta edukia direla eta, egokitzat jotzen diren izapide eta txostenak egin beharko dira, otsailaren 28ko 6/2023 Foru Dekretuarekin bat etorriz. Arabako Foru Aldundiaren xedapen orokorrak egiteko prozedura onartzea.

Lehenik eta behin, hasierako foru-agindu hau onetsiko da, eta ez da beharrezkoa izango aurretiazko kontsulta publikoaren izapidea, Foru Gobernu Kontseiluaren otsailaren 28ko 6/2023 Foru Dekretuaren 10.a) artikuluan xedatutakoaren arabera, eta testua ere ez da entzunaldiko eta jendaurreko informazioko izapidearen mende jarriko, aipatutako 6/2023 Foru Dekretuaren 14.4 artikuluan xedatutakoa aplikatuz.

Jarraian, nahitaezko txosten hauek bilduko dira:

1. Arau-eraginari buruzko txostena.

2. Generoaren araberako eraginaren txostena.

3. Ekonomia- eta araudi-kontrolari buruzko txostena.

4. GOFEko Langileen Arloaren txostena.

5. GOFEren Antolamendu eta Informatika Arloaren txostena.

Era berean, Idazkaritza Nagusiaren legezkotasun-kontrolaren mende jarriko da, ondoren Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Administrazio Kontseiluari aurkezteko eta Foru Gobernu Kontseiluak foru-dekretua onartzeko eta, ondoren, ALHAOn argitaratzeko.



L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

f) Arau-testua bi hizkuntzetan idazteko metodoa.

Bi hizkuntza-bertsio ofizialen artean (gaztelania eta euskara) egon behar duen baliokidetasun juridikoaren printzipioa gauzatzeko, Arabako Foru Aldundiko Funtzio Publikoaren Zuzendaritzako Euskara Zerbitzuak egingo du arau-testuaren euskararako itzulpena.

Bigarrena. Foru Dekretuaren proiektua onartzea, apirilaren 3ko Diputatuen Kontseiluaren 25/2012 Foru Dekretua aldatzen duena, Gizarte Ongizaterako Foru Erakunde autonomoaren egitura eta funtzionamenduaren erregelamendua onartzen duena.

Hirugarrena. GOFEko Kudeaketako Zuzendaritzaren eta erakunde horretako Kontratazio eta Araubide Juridikoaren Arloa izendatzea hura izapidetzeko organo arduradun.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko urriaren 23a

*Gizarte Politiken Saileko foru diputatua*
*GORKA URTARAN AGIRRE*

*Gizarte Zerbitzuen zuzendaria*
*ANA BELÉN OTERO MIGUÉLEZ*



L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432



Firmante: CN=ARABAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACION FORAL DE ALAVA, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=SELLO ELECTRONICO, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-P0100000I, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 267116
Fecha de firma: 2024.10.30 06:43:51 Z